



**BERDINTASUN ARLOKO IKERKETA BEKA
EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA
2025EKO DEIALDIA**

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE
2025 PARA LA CONCESIÓN DE LA BECA DE
INVESTIGACIÓN EN MATERIA DE IGUALDAD**

Aurrekariak

Oinarri hauen helburua da Zumaiaiko landa eremuko emakumeen egoera sozioekonomikoa, kulturala eta politikoa aztertzea.

Izan ere, emakumeen ikuspegi eta ekarpenei balioa ematen ez dien kontakizuna izan da gure herriaren historia eraikitzeko ardatz. Gizonak izan dira objektu bakar, eta horrek, bazterrean geratzen diren errealitateak aintzat hartzen ez dituen kontakizun bat eman digu. Ez dira emakumeen errelatuak jaso izan eta ondorioz, landa eremuko emakumeen ikusgarritasun sozialean defizit nabarmena izan dugu, bizitza ekonomikoan, gizartean, kultur mailan eta politika alorrean egindako ekarpenei dagokionean. Landa eremuko emakumeek, ikusezintasunean, funtzio produktibo, sozial, kultural eta ingurumenekoak bete dituzte belaunaldiz belaunaldi.

Zumaiaiko Udalaren Berdintasun politiken ardatz estrategikoetako bat da balio aldaketa bultzatzea sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatuta, baita emakumeen partaidetza eta eragin soziopolitikoa sustatzea ere. Helburu horiek erdiesteko tresna garrantzitsua izan daiteke honako ikerketa beka, hau da, landa eremuko emakumeek pairatzen dituzten genero desberdintasunak identifikatzeko eta horiek gainditzeko estrategiak planteatzeko.

Guzti honetan oinarrituta eta Zumaiaiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko 2.2. helburu operatiboan jasotakoari jarraiki ("Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen bizi baldintzak hobetetzea"), Zumaiaiko Udaleko Berdintasunerako sailak ikerketa bekarako oinarriak osatu ditu.

Antecedentes

El objetivo de estas bases es analizar la situación socioeconómica, cultural y política de las mujeres rurales de Zumaia.

De hecho, el relato que no pone en valor las visiones y aportaciones de las mujeres ha sido el eje sobre el que se ha construido la historia de nuestro país. Los hombres han sido el único objeto, lo que nos ha proporcionado un relato que no atiende a las realidades que quedan al margen. No se han recogido los relatos de las mujeres y, en consecuencia, se ha producido un déficit significativo en la visibilidad social de las mujeres rurales en cuanto a sus aportaciones a la vida económica, social, cultural y política. Las mujeres rurales, en su invisibilidad, han desempeñado funciones productivas, sociales, culturales y medioambientales de generación en generación.

Impulsar el cambio de valores mediante la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo, así como fomentar la participación e influencia sociopolítica de las mujeres es uno de los ejes estratégicos de las políticas de Igualdad del Ayuntamiento de Zumaia. Esta beca de investigación puede ser una herramienta importante para alcanzar estos objetivos, es decir, para identificar las desigualdades de género que sufren las mujeres rurales y plantear estrategias para superarlas.

En base a todo ello y en el marco del IV. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Zumaia, tal y como se recoge en el objetivo operativo 2.2 "Mejorar las condiciones de vida de las mujeres en situación de vulnerabilidad" del Plan, el área para la Igualdad del Ayuntamiento de Zumaia ha elaborado las bases para la beca de investigación.



1.- Ikerketaren xedea

Ikerketaren esparrua honakoa izango da: Zumaia landa eremuko emakumeen egoera sozioekonomikoa, kulturala, eta politikoa aztertuko da, bertan gertatzen diren genero desberdintasunak identifikatu, eta horiek gainditzeko estrategiak planteatuko dira.

IV. Berdintasunerako Planean jasota dagoen moduan, Zumaia Udalari interesatzen zaio landa eremuan bizi diren emakumeen datuak jasotzea eta azterketa egitea. Landa eremuaren biziraupena bermatzeko eta belaunaldi berriak lehen sektorean lan egitera bultzatzeko beharrezko neurriak identifikatzea, bere plangintzan txertatzeko.

2.- Oinarri arautzaileak

Honako hauek arautuko dituzte dirulaguntza hauek:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaia Udalak eta bere erakunde autonomoek dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.).
- 2024-2027 epealdiko Zumaia Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 Zk.).
- Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena.

3.- Ikerketaren iraupena eta azken produktua

Ikerketaren iraupena, gehienez ere **6 hilabetekoa** izango da, beka onartu izanaren

1.- Objeto de la investigación

El marco de la investigación se centrará en analizar la situación socioeconómica, cultural y política de las mujeres rurales de Zumaia, identificar las desigualdades de género que se producen en ella y plantear estrategias para superarlas.

Tal y como se recoge en el IV. Plan para la Igualdad, al Ayuntamiento de Zumaia le interesa recoger los datos y realizar el análisis de las mujeres que viven en el medio rural. Identificar las medidas necesarias para garantizar la supervivencia del medio rural y estimular a las nuevas generaciones a trabajar en el sector primario para incorporarlas a su planificación.

2.- Bases reguladoras

Estas subvenciones se regirán por:

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Zumaia y sus Organismos Autónomos (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 151, de 11 de agosto de 2020).
- Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia para el periodo 2024-2027 (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 243 de 20 de diciembre de 2023).
- Ley de Igualdad Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y la no violencia machista contra las mujeres.

3.- Duración de la investigación y producto final

La duración de la investigación no podrá exceder de **6 meses**, a contar desde el día



agiria aurkezten denetik kontatzen hasita. Epe horretan gauzatu eta aurkeztu beharko da Udalean hautatutako proiektua.

Epaimahaiaren onespena jasota, bekaren onuradunek lana herriari aurkeztu beharko diote hitzaldi baten bitartez, hilabete bateko epean.

4.- Onuradunak

Ikerketarako beka bete beharreko baldintzak betetzen dituen norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan (nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak), taldeko arduraduna izendatu beharko du taldeak eta hark izango du lanarekin zerikusia duen guztirako ardura nagusia.

Beka jaso ahal izateko, hautagaiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte, nahitaez:

- Unibertsitateko ikasketak: Erdi mailako edo goi mailako Unibertsitateko titulua izatea.
- EGA edo baliokidea izatea (C1).

Taldeen kasuan, gutxienez, taldekideen %50ak bete beharko ditu bi baldintza horiek (unibertsitateko ikasketak eta EGA edo baliokidea). Edonola ere arduradunak nahitaez bete beharko ditu.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Zumaia Udaleko dirulaguntzak emateko ordenantzan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

5.- Eskakerak aurkezteko tokia eta epea

Eskabideak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki.

Presentzialki Zumaia Udal Erregistroan (Foruen enparantza 1, 20750 Zumaia) edo Administrazio Publikoen Administrazio

siguiente al de la notificación de la resolución de concesión de la beca. En este plazo deberá ejecutarse el proyecto seleccionado.

Una vez recibida la aprobación del tribunal, las personas beneficiarias tendrán que presentar al pueblo el trabajo realizado mediante una conferencia, en el plazo de un mes.

4.- Personas beneficiarias

Se puede optar a la beca individualmente o en grupo. En el segundo caso (grupos de personas físicas sin carácter jurídico) deberán nombrar una persona responsable, la cual tendrá la responsabilidad principal de todo lo concerniente al trabajo de investigación.

Para poder acceder a la beca es imprescindible cumplir las siguientes condiciones:

- Estudios universitarios: tener un título universitario de grado medio o superior.
- Tener el EGA o equivalente (C1).

En el caso de grupos de trabajo, como mínimo el 50% de las personas integrantes deberá cumplir esas dos condiciones. De todas formas, la persona responsable del proyecto deberá cumplirlas obligatoriamente.

En todo caso, para ser consideradas personas beneficiarias deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y en los artículos 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y en la Ordenanza de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia.

5.- Plazo y lugar de presentación de solicitudes

Las solicitudes se pueden presentar de forma presencial o telemática por personas físicas.

Deberán presentarse presencialmente en el Registro Municipal de Zumaia (Foruen enparantza 1, 20750 Zumaia) o en cualquier otra



Prozedura Erkidaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

forma prevista en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Telematikoki, udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

Telemáticamente, accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web (www.zumaia.eus).

Eskabideak aurkezteko epea: **30 egun**, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera indarrean izanda.

Plazo de presentación de solicitudes: **30 días**, vigente desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

6.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

6.- Solicitudes y documentación requerida

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Las solicitudes se formalizarán mediante el modelo normalizado que figura en el anexo I de la presente convocatoria.

Zumaia Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

El Ayuntamiento de Zumaia, a través del Nodo de NISAE, realizará las comprobaciones y consultas necesarias sobre los datos puestos a disposición de la Administración por las personas interesadas. Por ello, se suspenderán las solicitudes de datos que puedan ser interoperables, siempre que la interesada no se oponga expresamente a su utilización, en cuyo caso deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

La base para la mediación de datos entre Administraciones Públicas se determina en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, en el que se reconoce el derecho de la ciudadanía a no presentar documentos emitidos por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa aplicable o que las personas interesadas hayan facilitado previamente a cualquier Administración.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekariz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte

Asimismo, recordando lo señalado en el artículo 155 de la Ley 40/2015, las Administraciones deben colaborar entre sí en el intercambio de datos y facilitar los datos relativos a la ciudadanía que obren en su poder.

Horren ildotik, Zumaia Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko,

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia acreditará, a través de los servicios de NISAE, plataforma de intermediación de datos y otras



NISA Eren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Parte hartuko duten pertsonen NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituztela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituztela.

Zumaia Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Ezin bada datuen artekaritza plataformaren bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Eskabidearekin (deialdiko I. eranskina) batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Curriculum, egindako ikasketa eta ikerketak zehaztuta eta horiek egiaztatzeko agiriak eta tituluak, eta eskatzaileak lanik argitaratu badu, argitaratutako lanaren lehen orrialdea. Lantaldeen kasuan partaide guztienak.
- Zinpeko aitortpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez, legeko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duenaren 23.2 artikulua arautzen duen ildotik (III. Eranskina).
- Lan proiektua: bertan jasoko direlarik izenburua, esparrua, aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera, ikergaia

administraciones, los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria:

- DNI o documento equivalente de las personas participantes.
- Que están al corriente de sus obligaciones tributarias.
- Que se encuentran al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

El Ayuntamiento de Zumaia verificará de oficio el cumplimiento de las obligaciones con el Ayuntamiento.

Cuando no sea posible realizar la consulta a través de plataformas de corretaje de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, excepcionalmente se podrá requerir a la solicitante la presentación de dicha documentación.

A la solicitud (Anexo I de la convocatoria) se acompañará la siguiente documentación:

- Curriculum detallando estudios e investigaciones realizadas y los títulos o justificantes justificativos, y si la persona solicitante ha publicado algún trabajo, la primera hoja del mismo. En el caso de agrupaciones, los expedientes académicos de todas las personas integrantes.
- Declaración jurada de no hallarse sancionada ni hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas. Dichas prohibiciones incluirán la recogida como consecuencia de la discriminación por razón de sexo, en los términos previstos en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y contra la violencia machista (III. Anexo).
- Proyecto de trabajo: en el cual se recogerán el título, ámbito, antecedentes y estado actual del



zehaztuta, ikergaiaren testuinguru teorikoa, helburuak, metodologia, kronograma, erabiliko diren baliabideak eta biografia eta aurreikusitako emaitzak eta horien interesa. Lan proiektuak 15 orrialde izango ditu gehienez. Proiektuaren bi kopia aurkeztuko dira paperean, eta beste bat euskarri digitalean (II. Eranskina).

- Proiektuen genero ikuspegia noraino kontuan hartzen den zehaztu beharko da (IV. Eranskina).
- Euskararen tratamendua (V. Eranskina)
- Eskatzailearen edo eskatzaile guztien harremanetarako datuak (VI. Eranskina).

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Taldeko ordezkari bakar bat izendatu beharko da, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalmena nahikoa izango duena. Bekaren onuradun proposatuko balitz, beka emateko ebazpena baino lehen izendatu beharko da talde ordezkaria behar adinako botereekin.

Taldea ezingo da desegin, 38/2003 Legearen 39 eta 65. artikuluetan aurreikusten den preskripzio epea gainditzen den arte.

7.- Akatsak zuzentzea

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua).

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena

tema, tema de investigación concreto, contexto teórico del tema de investigación, objetivos, metodología, cronograma, recursos y biografía que se usarán y los resultados previstos e interés de los mismos. El proyecto tendrá como máximo 15 hojas. Se presentarán dos copias del proyecto en papel y otra en formato digital (II. Anexo).

- Especificar el grado de inclusión de la perspectiva de género en el proyecto (IV. anexo).
- Tratamiento del euskera (V. anexo)
- Datos de contacto de las personas participantes (VI. Anexo).

En cualquier caso, además de la documentación relativa a la actividad presentada, el Ayuntamiento podrá requerir a las personas solicitantes información adicional para la correcta valoración de la misma.

Deberá designarse un/a único/a representante del grupo con capacidad suficiente para cumplir las obligaciones que como parte beneficiaria corresponden al grupo. En el caso de que se propusiera parte beneficiaria de la beca, el equipo delegado deberá ser designado con poderes suficientes antes de la resolución de concesión de la beca.

La agrupación no podrá disolverse hasta que se haya superado el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la Ley 38/2003.

7.- Subsanación de errores

Si la solicitud o la documentación que la acompañe adoleciera de algún defecto o estuviera incompleta, se requerirá a las personas interesadas para que, en un plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación, subsanen los defectos observados (artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre).

Transcurrido el plazo concedido sin que se hayan subsanado los defectos observados, se entenderá desestimada la solicitud, previa resolución dictada de conformidad con lo dispuesto en el artículo 94 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo



eman ondoren.

Común de las Administraciones Públicas.

8.- Bekaren zenbatekoa eta aurrekontuko partida

Bekaren zenbatekoa 6.700 eurokoa izango da eta 11200.481.231.50.01 2025 aurrekontuko partidatik ordainduko da.

8.- Dotación y partida presupuestaria de la beca

La dotación de la beca será de 6.700 euros y se pagará de la partida presupuestaria 11200.481.231.50.01 2025.

9.- Ordainketa bidea

Ordainketa 3 zatitan egingo da onuradunaren titulartasuneko kontu batera Banku-transferentzia bidez:

1. ordainketa: %40a proiektua hautatutakoan eta onuradunak beka onartu ondoren.
2. ordainketa: %30a hiru hilabete igaro ondoren.
3. ordainketa: %30a ikerketa aurkeztu eta epaimahaiak bere oniritzia ematen duenean, bukaeran.

Diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion atxikipenak egingo zaizkio, PFEZ arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, eta bidezko diren gainerako zergak ere kendu beharko dira.

Ikerketan sortutako gastu guztiak ikerketa bekaren onuradunaren kontura izango dira.

9.- Forma de pago

El pago se realizará en 3 pagos a una cuenta titularidad de la persona beneficiaria mediante transferencia bancaria:

- 1º pago: 40% una vez seleccionado el proyecto y aceptada la beca por la persona beneficiaria.
- 2º pago: 30% transcurridos tres meses.
- 3º pago: 30% cuando se presenta la investigación y el jurado da su visto bueno al final.

Se practicarán las retenciones correspondientes al importe de la subvención, de acuerdo con lo establecido en la normativa reguladora del IRPF, debiendo deducirse los demás impuestos que procedan.

Todos los gastos generados en la investigación correrán a cargo de la parte beneficiaria de la beca de investigación.

10.- Esleipen prozedura

Epaimahai batek proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu. Epaimahaia ondorengoek osatuko dute:

- Udaleko Berdintasun zinegotzia
- Udaleko Berdintasun teknikaria
- Ikerketa feministan aditu bat

Epaimahaiak eginiko balorazioaren informazioa helaraziko zaio Berdintasun, Gazteria, Parte-hartze eta Aniztasun batzordeari.

Ondorengo balorazio irizpideak hartuko

10.- Procedimiento de adjudicación

Un jurado evaluará y seleccionará los proyectos. El Tribunal estará compuesto por:

- Concejala de Igualdad del ayuntamiento
- Técnica de Igualdad del ayuntamiento
- Una experta en investigación feminista

De la valoración realizada por el Tribunal se dará traslado a la Comisión de Igualdad, Juventud, Participación y Diversidad

Se tendrán en cuenta los siguientes criterios



dira aintzat:

de valoración:

**Ikerketa proposamenaren egokitasuna.
Gehienez 55 puntu**

**Pertinencia de la propuesta de investigación.
Hasta 55 puntos**

- a. Proiektuaren originaltasuna, interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa. Gehienez 20 puntu.
- b. Ikerketa lana testuinguruan kokatzea eta Zumaia udalerriaren ezagutza egitasmoan islatzea. Gehienez 10 puntu.
- c. Ikerketa proiektuaren argitasuna eta bideragarritasuna, metodologia eta kronograma sartuta. Baloratuko da planteatzea ikerketa txostenaren beste euskarri gehigarriak (adibidez, bideoa, podcasta...). Gehienez 25 puntu.

- a. Originalidad, interés, corrección y valor científico del proyecto. Hasta 20 puntos.
- b. Contextualizar el trabajo de investigación y reflejarlo en el proyecto de conocimiento del municipio de Zumaia. Hasta 10 puntos.
- c. Claridad y viabilidad del proyecto de investigación, incluyendo metodología y cronograma. Se valorará plantear otros formatos adjuntos al informe de investigación (ejem: video, podcast...). Hasta 25 puntos.

Eskatzailearen edo eskatzaileen curriculum. Gehienez 20 puntu (ibilibide akademikoa)

Curriculum de la persona solicitante o solicitantes. Hasta 20 puntos (itinerario académico)

- a. Azterketa honen antzeko ikerketa bereziak edota lanak egin izana. 2 puntu emango dira lan bakoitzeko. Gehienez 10 puntu.
- b. Hautagaiek, banakoek nahiz taldeetako kideek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan duten prestakuntza. Masterra izateagatik 2.5 puntu eta ikastaroak, orduen arabera:
 - 20 ordukoak: 0.5 puntu
 - 21-60 ordukoak: 1 puntu
 - 61 orduetik aurrera: 1.5 puntu.

- a. Haber realizado trabajos de investigación especiales y/o trabajos similares a los de este estudio. Se otorgará 2 puntos por cada trabajo. Hasta 10 puntos.
- b. Formación de las personas candidatas, individuales y colectivas, en materia de igualdad de mujeres y hombres. Por tener master, 2.5 puntos y los cursos, en función de horas:

- de 20 horas: 0.5 punto
- de entre 21-60 horas: 1 punto
- de 61 horas en adelante: 1.5 puntos

Gehienez 10 puntu.

Hasta 10 puntos.

Betiere, proposamenak ikuspegi feminista edo generokoa barneratua izan beharko du, irizpide baztertzaila izanik.

En todo caso, la propuesta deberá incluir una perspectiva feminista o de género, con un criterio excluyente.

Bi hautagaien edo gehiagoren artean berdinketa emango balitz, epaimahaiak elkarriketa baten bidez hartuko luke erabakia. Puntuazioan berdinketa duten hautagaiek bere txostena defendatu beharko lukete elkarriketan: 0-10 puntu artean.

En caso de empate entre dos o más candidatas/os, el jurado tomaría la decisión mediante una entrevista. Las personas candidatas con empate en la puntuación deberían defender su informe en la entrevista: entre 0-10 puntos.

Epaimahaiaren iritziz gutxieneko interesik edo kalitatea duen lanik ez balego, beka

En el caso de que a juicio del Tribunal no existiera un trabajo de mínimo interés o calidad,



eman gabe utzi ahal izango da eta horren ebazpena egingo du Organo eskudunak.

Oinarrietan jaso gabeko egoerak, epaimahaiak ebartziko ditu.

la beca podrá declararse desierta y será resuelta por el órgano competente.

Las situaciones no contempladas en las bases serán resueltas por el Tribunal.

11.- Instrukzioa

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Berdintasun teknikaria.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea Berdintasun Sailaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Berdintasun sailak dirulaguntza eskaerei buruz egingo duen aurre ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Berdintasun teknikariak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egingo du aipatu balorazio irizpideen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren, eta Berdintasun, Gazteria, Aniztasun eta Parte-hartze Batzordean informatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez

11.- Instrucción

La instrucción y propuesta se realizará conforme a lo establecido en la normativa vigente.

Órganos competentes:

- Instrucción: Técnica de Igualdad.
- Resolución que corresponderá a la Alcaldía o Junta de Gobierno Local, de acuerdo con las competencias y delegaciones temporales vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

Corresponde al Departamento de Igualdad la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención, así como el ejercicio de oficio de las acciones necesarias para la determinación, acceso y comprobación de los datos necesarios para la ejecución de la propuesta de resolución.

La fase de instrucción comenzará con la evaluación de las solicitudes de subvención que realizará el Departamento de Igualdad. La evaluación preliminar verificará que las personas solicitantes cumplen todos los requisitos establecidos para obtener la condición de beneficiarias de la subvención y que la documentación presentada es completa y adecuada.

La Técnica de Igualdad elaborará un informe de valoración de las solicitudes presentadas a la convocatoria de subvenciones en base a los citados criterios de valoración.

Una vez evaluadas las solicitudes e informadas en la Comisión de Igualdad, Juventud, Diversidad y Participación, elaborará una propuesta de resolución, debidamente motivada, que elevará al órgano competente para su resolución.

En el caso de que el resultado de la evaluación



ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

sea la no concesión de la subvención, se requerirá a las personas interesadas para que, en el plazo de 10 días, formulen las alegaciones que estimen oportunas en el trámite de audiencia.

12.- Ebazpena

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio ebaztea, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

12.- Resolución

Corresponderá su resolución a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local, de acuerdo con las competencias y delegaciones temporales vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahal izango dute.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento será de 3 meses. El plazo se computará desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo máximo sin haberse notificado resolución alguna, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud de concesión por silencio administrativo.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

La resolución del procedimiento se notificará a las partes interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

13.- Zuriketa

Ikerketaren iraupena, gehienez ere **6 hilabetekoa** izango da, beka onartu izanaren agiria aurkezten denetik kontatzen hasita. Epe horretan gauzatu eta aurkeztu beharko da Udalean hautatutako proiektua.

Proiektua, gutxienez, ikerketaren txostena euskarri informatikoan aurkeztu beharko diote Udalari.

Epaimahaiaren onespina jasota, bekaren onuradunek lana herriari aurkeztu beharko diote hitzaldi baten bitartez, hilabete bateko epean.

13.- Justificación

La duración máxima de la investigación será de 6 meses a contar desde la presentación del documento de aceptación de la beca. En dicho plazo deberá ejecutarse y presentarse el proyecto seleccionado en el Ayuntamiento.

El proyecto deberá presentar al Ayuntamiento, como mínimo, el informe de la investigación en soporte informático.

Con la aprobación del jurado, los beneficiarios de la beca deberán presentar el trabajo al pueblo mediante una conferencia en el plazo de un mes.

14.- Onuradunaren betebeharrak

- Emandako beka onartu behar dute. Horrela, beka eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamar eguneko epean onuradunek -pertsonek nahiz taldeek- beka

14.- Obligaciones de la persona beneficiaria

- Aceptar la beca concedida. Así, en el plazo de diez días desde la recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la beca, la persona o grupo de



beren-beregi eta idatziz onartu beharko dute. Beka itzultzeko konpromisoa adieraziko da, aurreikusitako lan programa bete ezin bada.

- Zumaia Udalak azterketaren jarraipena egin ahal izateko nahitaezko tutoretza ordu batzuk zehaztuko ditu, jarraipen bileren bitartez. Gutxienez, hilean behin, jarraipen bilera egingo du Udalak ikertzailearekin edo taldearekin.

- Beka zertarako eman den, helburu horretarako erabili behar dute, eta horretarako jarritako egutegiaren arabera, egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri eman beharko diote Zumaia Udalari, oniritzia eta onespena jasotzeko.

- Emandako beka motarekin bat datorren ikerlana egin behar dute, euskaraz.

- Egindako lanaren argitalpen eta publizitate orotan, Zumaia Udalaren laguntza jaso dutela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen marka erreproduzitu beharko da publizitate-euskarrian. Marka Zumaia Udalean eska daiteke.

- Lagundutako ikerlanaren kopia bat, euskarri informatikoan, Udaletxeari eman beharko zaio. Betebeharrak bete ezean, bekadunak itzuli egin beharko luke jasotako diru guztia.

- Lanaren jabea egilea bera izango da. Zumaia Udalak berarentzat gordetzen du, halere, ikerketaren argitalpen oso edota zatikakoa egiteko eskubidea. Kasu honetan, bekadunak uko egiten dio egile eskubideak jasotzeari. Zumaia Udalak lanak argitaratzea erabakiko balu, horren berri eman beharko die egileei eta bost urteko epean argitaratu beharko du. Lehen argitalpen horren ustiapen eskubideak Zumaia Udalarenak izango dira. Epe hau igarota, egileak bere lanak argitaratzeko eskubidea izango luke, betiere, izan zuen bekaren aipamena eginez. Udalak ikerketa argitaratzeari uko egingo balio lehenago argitara dezakete egileek.

- Lanak argitaratu gabea izan beharko du. Ez da onartuko aurretik saritutako lanik, ez itzulpenik, ez moldaketarik.

personas beneficiarias deberán aceptar expresamente y por escrito la misma. Se expresará el compromiso de reintegro de la beca en caso de no poder cumplir el programa de trabajo previsto.

- El ayuntamiento de Zumaia concretará unas horas de tutoría obligatorias para poder hacer el seguimiento del estudio, a través de reuniones de seguimiento. Al menos, una vez al mes, el Ayuntamiento celebrará una reunión de seguimiento con la persona investigadora o el equipo.

- Destinar la beca a la finalidad para la que ha sido concedida, debiendo dar cuenta al Ayuntamiento de Zumaia, según el calendario establecido al efecto, del trabajo realizado y de los resultados obtenidos, para su aprobación.

- Realizar un trabajo de investigación en euskera acorde con el tipo de beca concedida.

- En toda publicación y publicidad del trabajo realizado, hay que explicar que han recibido la ayuda del Ayuntamiento de Zumaia. Para ello se deberá reproducir la marca de la entidad en soporte publicitario. La marca se puede solicitar en el Ayuntamiento de Zumaia.

- Una copia del trabajo de investigación apoyado, en soporte informático, deberá entregarse al Ayuntamiento. En caso de incumplimiento de las obligaciones, la persona becario deberá devolver la totalidad de la cantidad percibida.

- La propiedad de la obra será de la persona autora. El Ayuntamiento de Zumaia se reserva, no obstante, el derecho a la publicación completa o parcial de la investigación. En este caso, la persona becario se niega a recibir los derechos de autor/a. Si el Ayuntamiento de Zumaia decide publicar las obras, deberá comunicarlo a las personas autoras y publicarlo en el plazo de cinco años. Los derechos de explotación de esta primera publicación serán los del Ayuntamiento de Zumaia. Transcurrido este plazo, la persona autora tendrá derecho a publicar sus obras, haciendo referencia a la beca que disfrutó. Si el Ayuntamiento se negara a publicar la investigación, las personas autoras la pueden publicar antes.

- El trabajo deberá ser inédito. No se admitirán trabajos premiados con anterioridad, ni traducciones, ni adaptaciones.



15.- Publizitatea

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradunek jarduerak iragartzeko erabiltzen dituzten euskarri guztiak euskaraz.

Onuradunek adierazi egin behar dute beren egitarauak edo jardunak Zumaia Udalaren dirulaguntza jaso duela: beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen dituzten kartel, egitarau, informazio eta hedabide guztietan.

15.- Publicidad

Todos los soportes que utilicen las personas beneficiarias de las subvenciones concedidas en el marco de estas bases para anunciar sus actividades serán en euskera.

Las personas beneficiarias deberán indicar que su programa o actuación ha sido subvencionado por el Ayuntamiento de Zumaia: será necesario que aparezca el logo del Ayuntamiento en todos los carteles, programas, informaciones y medios de comunicación que preparen para anunciar las actividades.

16.- Ez betetzea, itzultzeko prozedura eta zigortzeko prozedura

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzkoaren eta hura garatzeko Arautegiaren baitan aurreikusitako inguruabarrik gertatuz gero, jasotako kopuruak itzultzea eskatu ahal izango da, bai eta beka ordaindu zenetik itzultzeko data adostu arteko luzatzeagatik interesak ere. Itzultzeko prozedura goian aipatutako Diru Laguntzen Legeak eta hura garatzeko Arautegiak ezarritakoaren arabera gauzatuko da (Zumaia Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 25. artikulua).

Halaber, administrazioaren arau haustetzat hartzen dira 38/2003 Diru Laguntzen Legean diru-laguntzen gaitan sailkatutako egintzak zein ez-egintzak, eta aipatutako legean eta hura garatzeko arautegian araututako prozeduraren arabera zigortu ahal izango dira, baita laxokeria hustzat ere.

16.- Incumplimiento, procedimiento de devolución y sancionador

En el supuesto de que concurren las circunstancias previstas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, se podrá solicitar la devolución de las cantidades percibidas, así como los intereses por prórroga desde el pago de la beca hasta el acuerdo de fecha de reintegro. El procedimiento de reintegro se regirá por lo establecido en la Ley de Subvenciones arriba citada y su Reglamento de desarrollo (artículo 25 de la Ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia).

Asimismo, se consideran infracciones administrativas los actos u omisiones clasificados en materia de subvenciones en la Ley 38/2003 de Subvenciones, que podrán ser sancionados conforme al procedimiento regulado en la citada Ley y en su normativa de desarrollo, así como por simple incorrección.

17.- Oinarrien interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea.

17.- Interpretación de las bases

Cualquier duda que surja en relación con la interpretación de estas bases, corresponderá al mismo órgano responsable de la concesión de la subvención decidir al respecto.



Zumaia Udala

2025IDLD0001

AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek indarrean jarriko dira Tokiko Erregimenaren Oinarriak Arautzeko 7/85 Legearen, apirilaren 2koaren, 70.2 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, eta indarrean jarraituko dute udalbatzak aldatu edo indargabetu arte.

DISPOSICIÓN FINAL

Las presentes Bases entrará en vigor al amparo de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y mantendrá su vigencia hasta su modificación o derogación por el Pleno de la Corporación Municipal.